

ERROMATARRAK

300 urte k.o. Erromako inperioa Germania inguruan ari zen borrokan.

Augusto Erromako enperadorea zen eta Claudio III, militar ministroa. Bien artean Germaniako gerratea burutu zuten, baina gerra neguan hasi zen eta soldaduak nekatuta zeuden, gerratea ez galtzeko soldaduek suministro gehiago behar zuten eta horrek esan nahi zuen inperioak diru gehiago behar zuela. Augusto, Claudio eta Maximiliunek, ekonomiako ministroak, luzez pentsatu zuten. Claudiok inpuestoak igotzearekin dirua lortuko zutela esan zuen, baina Maximiliunek esaten zuen inpuestoak igotzen bazituzten erromatarrek haserretu egingo zirela eta iskanbilak egongo zirela. Ondoren Augusto enperadoreak hitz indartsuekin esan zuen inpuestoak igotzea hoberena zela eta, erromatarrek haserretzen baziren, legionarioek kalmatuko zituztela.

Hurrengo egunean Augustok inpuestoak igo egin zituen, baina jendea haserretuta legionarien aurka borrokan hasi zen. Erromatarrek ezin zuten ezer egin eta ordu bat geroxeago mila pertsona zeuden kartzeletan eta beste guztiak beraien etxeetan ikaratuta.

Barrez hasi ziren Claudio eta Augusto berria ezagutzean eta beraien plana segituan jarri zen martxan. Germaniako gerratea ondo hasi zen .

Germanian oso atzeratuak zeuden eta erromatarren armak ez zituzten ezagutzen. Skronek, Germaniako tribu bateko buruzagiak, armada handia zeukan eta aurreneko erasoari eutsi egin zion, baina erromatarrek beraien basoak erretzen hasi zirela ikustean, dena galduta ikusi zuen eta bere jendea ez hiltzeko errenditu egin zen. Baina erromatarrek denak hil egin zituzten, indartsuenak izan ezik.

Skron oso haserretuta zegoen eta irrikatan zegoen, berak esaten zuen bezala, "erromatarren buruzagiari burua apurtzeko". Gero legionario bat etorri zen eta Germanieraz esan zuen denak gladiadoreak izango zirela. Skronek "gladiadorea"k zer esan nahi zuen galdetu zuen eta legionario borrokatzaileak izango zirela erantzun zion.

Aste bat geroxeago Germaniatik atera ziren eta Skron negarrez hasi zen bere familiaz gogoratuz.

Bi hilabete geroxeago Erromara iritsi ziren eta Skron liluraturik gelditu zen enperadorearen jauregia ikustean. Ondoren etxe, handi baina zahar batera iristean zaldiak, gelditu egin ziren eta denak jaitsi ziren. Etxetik gizon handi eta indartsu bat atera zen eta, Germaniako hizkuntzaz baliatuz, laster latina ikasiko zutela eta ikasi eta gero entrenamendu oso gogorra edukiko zutela esan zuen. Bi hilabetetan germaniarrak latina bazekiten, ez oso ondo, baina defendatzen ziren.

Aste bat pasa zuten ezer egin gabe eta goiz batean tronpeta-soinua entzun zen. Skron eta besteak esnatu egin ziren, ondoren germaniar guztiak patiora joan ziren, hor gizon indartsu hori zegoen eta latinez esan zuen:

-Prest al zaudete entrenamendu gogor bat edukitzeko?

Germaniarrak ez zuten ezer esan.

Entrenamendu gogorra izan zen goiz hartakoa: ordu bat korri egitea, bailak saltatzea, ezpatarekin borrokatzea...Eguerdia iritsi zen eta denak jatera joan ziren. Hor legionario bat zegoen eta esan zuen arratsaldeko seietan denak patioan egon behar zutela.

Seiak iritsi ziren eta denak patioan zeuden. Patioan hiru karroza zeuden eta bakoitzean bi zaldi. Zenturioi batek builaka esan zuen denak karrozetan sartzeko.

Ordu erdi pasa zen; zaldiak gelditu egin ziren eta denak jaitsi egin ziren. Eta germaniarrak jaitsi zirenean, koliseoa ikusi zuten eta ia desmaiatu egin ziren. Esan zieten koliseora sartzeko. Ondoren koliseo erdian zeuden, borrokatzeko prest, eta milaka pertsona zeuden euforiaz oihuka. 30 germaniar zeuden beraien ezpatekin. Hamar minutu pasa ziren eta lau atetatik lau tigre atera ziren. Skronek, begirada gorantz egitean, palkoa ikusi zuen eta han gizon batzuk zeuden armadura distiratsuekin. Skronek pentsatu zuen horretarako gizon erromatarren buruzagia izan behar zuela. Halaxe zen: palko horretan Claudio, Augusto eta Maximiliun zeuden.

Skron korrika joan zen palkorantz, baina horma oso luzea zen eta ezin zuen eskalatu. Orduan ezpata bota zuen palkora eta Augustori eman zion esku batean. Minutu bat pasa zen eta tigre guztiak hilda zeuden eta hamaika germaniar ere bai. Gero legionario batzuk Skron hartu eta koliseotik joan ziren eta kalabozo batera eramán zuten eta han eskuak eta hankak lotu egin zituzten.

Handik ordu laurden batera Claudio etorri zen eta Skronen parean jarri zen eta hau esan zion:

-Txorua zaude ezta?

-Joan kaka egitera.-esan zuen Skronek.

-Baina ondo borrokatzen duzu. Gainera ikusi dut ni hiltzeko asmoa daukazula.

-Asko

-Zer iruditzen zaizu gu bion artean borroka bat egitea?

-Gustura

-Oso ondo.

Aste bat pasa zen eta Skroni ez zioten janaririk ematen eta, gainera, legionarioak kolpeka ari zitzaizkion gauero. Borroka egunaren bezperan, beti bezala, legionarioak Skroni golpeak ematen ari ziren. Baina afaldu eta gero germaniar guztiak Skroni laguntzera joan ziren eta bere kalabozora sartu eta lau legionario hil egin zituzten.

Germaniarrak Skron hartu eta korrika hasi ziren. Bidean beste legionario batzuk hil zituzten. Skronek esan zuen ze bide hartu behar zen ateratzeko, eta handik bost minututara kalean zeuden. Ondoren zaborretan lo egin zuten.

Goiza zen eta eguzkia ia ez zen atera. Germaniarrak merkatua joan ziren zerbait erostea. Geroxeago merkatuan orri batzuk ikusten ziren. Germaniarrak ez zekiten irakurtzen baina orrian beraien aurpegia marraztuta eta zenbaki asko ateratzen ziren. Orduantxe legionario patruila bat agertu zen eta beraien ezpatekin lau germaniar zeharkatu zituzten. Baina Skronek ihes egin zuen legionarioak atzean utziz.

Skronek mozerro bat jarri zuen jendeak ez jakiteko zein zen. Geroxeago diru pixka bat lapurtu zuen eta koliseora joan zen. Diru guztia gastatu zuen palkoaren ondoan esertzeko. Arratsaldeko zazpiak ziren; hirugarren borroka bukatzen ari zen eta Skron, bere ezpata atera eta korrika joanez, Maximiliuni bihotzean sartu zion ezpata. Maximiliun hilda zegoela ikustean, ezpata atera eta berriro ihes egin zuen. Baina alferrik; Claudioren legionarioak harrapatu zuten eta Claudiorengana eraman zuten. Claudiok esan zuen:

-Berriro juntu eh...

-Gizona baldin bazara nirekin etorriko zara borrokatzera.

-Ez nago oso seguru zu ni baino indartsuagoa zarenik. Aurrena Augustoren aurka egingo duzu borroka, Augusto ados badago.

-Ados nago! Germaniar honek eta nik gauza batzuk konpondu behar ditugu eta...

-Oso ondo!-esan zuen Claudio

-Gainera borroka honek diru asko emango du.

Legionarioek Skron hartu eta bihotzetik hurbil zauri bat egin zioten. Orduan kartzela batean sartu zuten eta han gaua pasatu zuen. Eguna iritsi zen eta Skron koliseoan zegoen armadura zatar batekin. Milaka pertsona zeuden koliseoan Augusto sartu zenean. Armadura txuri bat zeukan jantzita borroka hasi zenean. Skron mantsoago ibiltzen zen. Augustok ezpata atera eta Skroni eraso egin zion, Skronek ahal zuen bezala eskibatu egin zuen eta Augusto erori egin zen. Orduan Skron bere gainean eseri zen Augusto ez mugitzeko. Skronek ezpata atera eta lepoa moztu zion. Jende guztia isilik geratu ziren baina momentu batzuk pasa eta gero denak oihukatzen zuten:

-Gora germaniarra!!!

-Gora Skron!!!

Skronek ez zuen ulertzen zergatik ari ziren irribarrez eta ez negarrez, "beraien buruzagia hila dago eta parrez ari dira, txoroak daude".

Claudio irribarrez zegoen hau pentsatzen "borroka hau eta gero nire borrokara jende gehiago etorriko da eta diru gehiago lortuko dut".

Skron Koliseo erdian zegoen ezer ezin ulerturik. Orduantxe bi legionario etorri ziren Skron kartzela eramatera eta legionarioek esan zioten:

-Zorte handia eduki duzu.

-Baina Claudio Illren aurka ezingo duzu ezer egin.

Gauerdia zen eta Skron bere familiaz ari zen gogoratzen. Bere anaia txikia, Hans, Germanian erromatarren eskuz hilda; Rita, bere emaztea, basoan erre zen eta Grat, bere umea, bere amarekin erreta. Orduantxe Skroni negar malkoak atera zitzaizkion, eta segituan lo hartu zuen.

Goiza zen eta atzo bezala bi legionarioz segituta Koliseora joan zen; oraingoan beheko pisura joan zen eta hor Claudio zegoen bere urrezko ezpata eta armadura janzten. Esan zion:

-Egun on, germaniar, prest al zaude zeure familiarekin elkartzeko?

-Eta zu zure lagunekin?

-Ja ja ja, ejem, gaur ez duzu eramango atzoko armadura triste hori, Augustoren armadura eramango duzu.

-Baita zera ere. Nik nire armadurarekin borrokatuko dut!

-Nahi duzun bezala.

-Goazen -esan zuen enperadoreak.

Biak Koliseora atera ziren. Skronek bere ametsa errealitate bihurtuko zela uste zuen, enperadorea hiltzea borroka batean, eta Claudio Illak diru gehiago lortzea espero zuen. Jendea irrikatan zegoen borroka hasteko eta azkenik hasi zen. Skronek zauria zeukan eta Claudiok aprobetxatu egingo zuen. Biak erasotzen hasi ziren baina Skron izan zen galtzailea eta lurrera erori zen. Claudio korrika abalantzatu zen, baina kale egin zuen eta ezpata lurrean sartu zen. Skron beregana joan zen eta, ezpata lepoan zeukanean, ohoreaz gogoratu zen eta Claudioki denbora utzi zion ezpata hartzeko. Eta Claudiok esan zion:

-Akatsa izan da niri denbora ematea.

-Ez dakit, baina irabazten badut ohore guztiarekin izan behar du.

-Denbora galtzen ari zara.

Hori esandakoan berriro eraso egin zuen eta Skroni tripa erdian sartu zion ezpata. Skron lurrera erori zen. Jende guztia harriturik geratu zen eta enperadoreak, barrezka, jendeari begiratzen zion; baina Skron ez zegoen hilda eta bere ezpatarekin zeharkatu zuen. Enperadorea lurrera erori zen hilik eta Skron ere lurrera erori zen eta, bere indar gutxiekin, hau esan zuen:

-Lortu egin dut...

Eta hil egin zen. Erroman beste enperadore bat jarri zuen, Julio izenekoa, eta bere lagun minari hau esan zion:

-Ideia bat daukat: zergatik ez dugu Galia menderatzen?

Baina hori beste historia bat da.

AMAIERA